

---

---

**ABERTZALEAK ALKARTZEKO ORDUA**

---

---

Guztiok goratzen dogu alkartasunaren indarra eta erriaren onerako alkartuta jokatzeari genduke. Eta bear-izan au argiago ta biziago agertzen jaku auteskundea egiten dan orduan: Gauza ederra benetan, euskaldunak ondo alkartuta, udaletxeetan eta Aldundietan batera jokatzea eta orrelan erriaren arerio, agirian naiz erdisillean, diranai errez irabaziko geunskioe, erria aurrera aterateko.

Baiña eskuldunak izakeraz nortasun aundi-koak gara eta, orrez gaiñera, bakoitxak berea zaintzen zaleak, eritxiak diranean be bai. Jokera orren oiñarria izan daiteke kondairan izan dogun baserri-bizitza. Gure baserria burujabe izan da eta iñongo ikuturik etorri jakonean, minbera. Gero etxeko jauna errigintzara sartu da, gaurko berbea artzeko, demokrazi-jokoa onartu dau, baiña gure demokrazia beti izan da gatxa, eta orrexegaitik, bere sasoiaren ederrena eta erredugarria.

Oiñarria orretan dagoan ala ez eztabaidatu leiken gauzea da, baiña argi bai agertzen dala auskaldunak alkartzen ez garala zaleak, edo beintzak ez dala erreza gure artean alkartasuna lortzea.

Alderdiak baiño gorago aberria jarten ikasi bear dogu. Buruz ori onartzen dogu, baiña egiteetara jatsi bear danean aiztu be bai. Bear ba'da azkenengo auteskundean agertu da zerbait aber-tzaletasuna gorago dagoala alderdia baiño, eta orrek guztiok poztu bear gaitu. Gaur agintaritzara sartu dira alderdiak, gitxienez Euzkadi-maillan, orrelan jokatzen dabela esan lei: Guztien elburu lez agertzen da Aberriaren buru-jabetza osoa lortzea, urteen joanean galdu doguzan eskubideak eskuratzea.

\*

Elburu orretara eltzeko bideak eta uneak ez dira bardiñak. Guztiok gogorkeria alboratu arren, politika-jokoan bertan be ez goaz batera.

Oiñarri on bat dogu oraingoz Araudia, beronek eskintzen dauzan aukerak lortu arte beintzat.

Araudiak ekarri dauzan onurak, jaurketarloan naiz ekonomi-arloan naiz jakintza-bideetan, benetan onartzekoak dira eta oraindiño eskubide-aldatze batzuk egin barik dagozan ezkerero, Araudia oso-osoan bere bidean jarrea, lenengo elburua da eta lortzen diran gauza guzti orreik ziurtasunaz beteten ikusten dogunean orduan eskatu al izango da gorago mailla bat.

Eta beste eupada edo erronka ozen bat, batez be aspaldiko urteetan, Europa dogu. Beti esan dogu Europa'n dan izkuntzarik zarrena dala gurea, eta orregaz esan gura dogu Europa'ko erririk zarrena garala. Orrek ez dauku emoten eskubide berezirik, baiña bai berba egiteko aukerea: Argi agertu bear dogu, eta agertzen dogula uste dot, guk nai dogun Europa zelakoa dan, ez laterri zapaltzailleena, erri bizi eta bizkorrena baiño.

Olako errien artean guk izan geinke, erri lez alkartzen izten badauskue, Egoaldea, Iparraldea ta Naparroa esan gura dot, gure nortasuna, baiña ez laterrien arteko indar-munduan.

Olako European dago gure lekua.

\*

Ozen entzun dogu esaldi au: "Abertzaleak alkartzeko ordua eldu da".

Esaldi ederra benetan, eta egiteetan be beteten doala ikusten dan esaldia. Ori agertzen dabe Jaurketarako alkartu diran iru alderdiak, ori agertu bear leukee alderdi orreik Udaletxeetan eta Aldunditan be alkartuta jokatuz. Eta egitez alkartu ezkerero, bear ba'da alkartasun sakonagora be jo al izango da.

Alkartzeko ordua eldu da. Alkartu gaitez.

OLAZAR'tar MARTIN'ek